NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

6549

AGINDUA, 2008ko azaroaren 6koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, 2008. ekitaldiko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, 2007-2013 Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzen duen azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren babespean.

2007-2013 Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzen duen azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuak helburu dauka dirulaguntzak emateko araubidea bildu eta arautzea, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-esparruetako bizi-kalitatea hobetzeko eta landa-esparruko ekonomia anizteko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeari begira.

Azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren 7.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera, urtero Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren agindu batek laguntza-eskaerak aurkezteko epeak ezarriko ditu, dirulaguntzok finantzatzeko diru-baliabideen zenbatekoaren eta jatorriaren berri emango du eta laguntzen diren inbertsioen eta jardueren iraupena zehaztuko du.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 49.5 artikuluak ezartzen duenez (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginа onartu zen dekretu horren bidez), Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia-ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak indarrean jartzen direnean diru-laguntzak emateko arauak gaurkotu nahiz berrikusiko dira, edo, behar izanez gero, arau berriak ezarriko dira, eta, orobat, zehaztugabeko indarraldia eman zitzaien diru-laguntzak iragarriko. Euskal Autonomia Erkidegoko 2008ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legea onetsita dagoenez, deialdi hori egin beharra dago.

Horren indarrez, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.– Helburua.

Agindu honen xedea da 2007-2013 Euskadiko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren arabera Leader ikuspegiaren aplikazioa arautzen duen azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren babespean eman beharreko dirulaguntzetarako deialdia egitea.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

6549

ORDEN de 6 de noviembre de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se procede a la convocatoria de ayudas, para el ejercicio 2008, al amparo del Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la aplicación del enfoque Leader de acuerdo al Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013.

El Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la aplicación del enfoque Leader de acuerdo al Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013, tiene por objeto recoger y regular la concesión de ayudas económicas destinadas a la financiación de actividades e inversiones para la diversificación de la economía rural y la mejora de la calidad de vida en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 7.2 del citado Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, establece que anualmente, por Orden del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, se abrirán los plazos de presentación de las solicitudes de ayuda; se dará publicidad al importe de los recursos económicos destinados a su financiación y la procedencia de los mismos, y se determinará el ámbito temporal en el que habrán de materializarse las inversiones y actividades auxiliables.

El Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, establece en su artículo 49.5 que, una vez en vigor los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio económico, se procederá a actualizar, revisar o en su caso establecer las normas reguladoras de la concesión de subvenciones de los programas y a realizar la convocatoria correspondiente de aquellas que fueron en su momento reguladas con carácter indefinido. Una vez aprobada la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008 se hace preciso, por tanto, proceder a dicha convocatoria.

En su virtud,

RESUELVO:

Primero.– Objeto.

Es objeto de la presente orden convocar las ayudas a conceder bajo el enfoque Leader conforme al Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco para el período de programación 2007-2013, previstas en el Decreto 185/2008, de 11 de noviembre.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-esparruetako bizi-kalitatea hobetzeko eta landa-esparruko ekonomia anizteko jarduera eta inbertsioetarako laguntzak arautzen dituen azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuak (Leader Programa) ezarritako laguntzetara biltzeko eskabideak aurkezteko epea, 2008ko ekitaldian, hamabost egunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– Agindu honek deitu dituen laguntzetara biltzeko eskabideen jatorrizkoa eta kopia zuzenean aurkeztuko dira edo landa garapeneko elkarteen bitartez «Mendinet, Landa Garapena Sustatzeko Elkartea» toki-ekintzarako taldeari bidaliz. Nolanahi ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 eta 38.9 artikuluak aurreikusitako bideetarik edozein erabili ahal izango da.

Eskaera-inprimakiak www.nasdap.ejgv.euskadi.net web orrian eskuragarri daude

Eredu horrekin bat etorriz, eskatzaileek hitza eman beharko dute ez daudela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko 50.5. artikuluaren paragrafo berrian ezarritako kasuetan (Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenaren indarrez sartuta).

2.– Eskabidearekin batera azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren 7.1 artikuluan ezarritako agiriak aurkeztu beharko dira.

Laugarrena.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Indarreko legerian ezarritakoaren arabera aurrekontu-aldaketarik gerta badaiteke ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek azaroaren 11ko 185/2008 Dekretuaren laguntzon xederako bideratu dituzten kredituek 4.420.035 euro jotzen dute.

2.– LGENF funts komunitarioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Planaren (2007-2013) babesean, aipatutako Dekretuaren helburua bete dadin erabili beharreko kredituen zenbateko zehatza 2.080.015 eurokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren landa-garapenerako programazioaren agiriko koadro finantzarioen birprogramaziotik etor litekeen finantzaketa gehigarriari kalterik egin gabe, Europako Batzordeak onetsitakoa. Landa eta Itsasertzeko Garapeneko zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

Segundo.– Plazo de presentación de solicitudes.

En el ejercicio 2008, el plazo de presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por el Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, por el que se regulan las líneas de ayudas a actividades e inversiones para la diversificación de la economía rural y la mejora de la calidad de vida en las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Programa Leader) será de quince días naturales, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.– Solicitudes y documentación a presentar.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas aquí convocadas se presentarán en original y copia, bien directamente o a través de las asociaciones de desarrollo rural, ante el Grupo de Acción Local «Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural Mendinet». En todo caso se podrán utilizar para su presentación cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 y 38.9 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los impresos de solicitud se hallan disponibles en la página web www.nasdap.ejgv.euskadi.net.

Conforme a dicho modelo, las personas solicitantes declaran bajo promesa, no encontrarse incursas en ninguna de las circunstancias recogidas en el nuevo párrafo del artículo 50.5 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco introducido por la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– A la solicitud deberá acompañarse toda la documentación prevista en el artículo 7.1 del Decreto 185/2008, de 11 de noviembre.

Cuarto.– Recursos económicos.

1.– Sin perjuicio de las variaciones presupuestarias que pudieran efectuarse conforme a la normativa vigente, los créditos presupuestarios con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi destinados al cumplimiento del objeto del Decreto 185/2008, de 11 de noviembre, ascienden a la cantidad de 4.420.035 euros.

2.– En lo que respecta al fondo comunitario FEADER, al amparo del Plan de Desarrollo Rural Sostenible de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2007-2013, la cuantía concreta de los créditos destinados al cumplimiento del objeto del citado Decreto, será de 2.080.015 euros sin perjuicio de la financiación adicional que pudiera resultar de la reprogramación de los cuadros financieros del documento de programación sobre desarrollo rural para la Comunidad Autónoma de Euskadi y que sean aprobadas por la Comisión Europea. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Director de Desarrollo Rural y Litoral.

Bosgarrena.– Proiektuak gauzatzeko epea.

2008ko ekitaldian, agindu honetan aipatu diren jarduera lagungarriak burutzeko epea 2008ko abenduaren 31n amaituko da. Salbuespen gisa deialdi honetarako, 2008. urtean hasitako proiektuez gain, 2007. urtean hasi edo bukatutakoek ere dirulaguntzak jasotzeko aukera izango dute.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 6a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Quinto.– Plazo de ejecución de los proyectos.

Para el ejercicio 2008 el plazo de ejecución de las actividades subvencionables a las que se refiere la presente orden no podrá ser superior al 31 de diciembre de 2008. Excepcionalmente para esta convocatoria, se considerarán subvencionables, además de los proyectos iniciados en 2008, aquellos que se hubieran iniciado y, en su caso, concluido en el ejercicio 2007.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero/a de Agricultura, Pesca y Alimentación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de noviembre de 2008.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.